# MONZON
## PASTORALA

Telesforo de Monzon Bergaran sortü zen 1904an abentüaren 1ean familia noble batetan, arbasoak Aragoi aldetik jinik zütüan. Telesforo goizik eüskal abertzalegoaren alte date ; ama-mintzoa gaztelera beitü, eüskararen ikasten hasiko da gogotik, eta bertan agertüko da horren egarle izigarri trebea.

Maria Josefa Ganuza Lardizabalekin ezkontüren zaikü, eta hau berekin düke bere güdüka güzietan.

Ofizioz abokatü da ; hogeita sei urteetan EAJ alderdiko depütatü haütatürik, Madrileko parlamentüan parte hartzen dü, bena frankisten oldarrari bürüz dü bere hein osoa erakutsiko.

Jose Antonio Agirre Lehendakariaren eüskal gobernüan Barne Ministro izanez, hatsarretik eüskal armadaren antolatzen hasiko da. Europan gainti kurritüko da arma bila eüskal batailuen armatzeko, eta Ertzaintza ere plantan ezarriko dü.

Gerla ürrentzean Eüskal Herriak 50.000 hil eta 150.000 iheslari dütü; Telesforo de Monzonek ere, Maria Josefa emaztearekin ihes egin behar dü, lehenik Donibane Lohizunera, gero Mexikora, biziaren salbatzeko.

1946an ützüliko dira gerla ürrentü baiko, eta Donibane Lohizunen plantatüko ; arte hortan idazlanetan hasirik zen, antzerkian eta olerkian ; arren eüskal kültürari lotürik da ; Begiraleak taldean parte hartzen dü bereziki aktür bezala.

Laster arrotz herrian dagoen eüskal gobernüa, gerla hotzaren kausaz bazter üzten düe Amerikak eta Europako demokraziek ; Frantzian dütüan azken güdariak desarmatü behar dütü. Monzon eüskal gobernü hortan egonen da 1953alano, bena hor EAJ alderditik hürrüntzen da, hau mantsoegi zaiolakoz, eta espainol errepüblikanoer soberaxe behatzen.

1969an Pierre Larzabal eta Jean Fagoagarekin, Anai Artea sortzen dü, hegoaldetik ihes jin behar düen eüskaldünen lagüntzeko.

Iheslarien alde, horien bürü agertzen da zügünki ; potereen injüstiziak salatzen dütü politikan, elizan, administrazionean, bereziki gose greba elibatetan parte hartzez.

Bi aldiz depütatü haütatürik date Herri Batasunaren izenean ; libertatearen aldeko borrokak berriz presontegialat eramanen dü zonbait egünen, bena ez da seküla zeditüko, bere ideier etxekirik egonen da bürüalano, xede batekin : Eüskal Herria behin libre izan dadin, bat eta eüskaldün.

1981eko martxoaren 9an Baionan hil izan da ; egün hortan eüskal popülüak bere abertzale handienetarik bat galdü dü balinba : ber denboran olerkaria, idazlea eta hein gorako gizon politikoa.

Telesforo de Monzon est né à Bergara le 1er décembre 1904, il est issu d'une famille aristocratique qui avait des racines aragonaises. Il adhérera très tôt au Nationalisme Basque, et comme sa langue maternelle est le castillan, il se met résolument à l'étude de l'euskara, langue qu'il domine très rapidement jusqu'à en devenir un maître incontesté.

Il épouse Maria Josefa Ganuza Lardizabal, qui sera très présente tout au long de sa vie, notamment lors de ses combats militants.

Avocat de profession, à vingt-six ans il est élu député du parti Nationaliste basque aux Cortés de Madrid, mais c'est le soulèvement franquiste qui va l'amener à donner toute sa mesure.

Ministre de l'intérieur du gouvernement basque de José Antonio Aguirre, dès les premiers jours il va s'attacher à organiser l'armée basque. Il sera aussi chargé de parcourir l'Europe afin de trouver des armes pour équiper les bataillons basques et mettra aussi en place la police basque (Ertzaintza).

A la fin de la guerre il y aura 50 000 morts et 150 000 réfugiés, parmi eux Telesforo de Monzon et sa femme Maria Josefa contraints de se réfugier à St Jean de Luz, puis obligés de partir pour Mexico, afin d'être en sécurité.

Ils reviendront à la fin de la guerre en 1946 et séjourneront à Saint Jean de Luz, pendant ce temps il aura commencé à écrire des pièces de théâtre, des livres de poèmes, il se dédie donc à la culture basque, faisant partie du groupe Begiraleak en tant qu'acteur notamment.

Bientôt, le gouvernement basque en exil, lâché par les démocraties occidentales, fera les frais de la guerre froide et finira par désarmer ses derniers combattants stationnés en France. Monzon siégera dans ce gouvernement jusqu'en 1953, mais il prendra ses distances avec son parti, le PNB, qu'il accusera d'une certaine passivité et d'une propension aux compromis avec l'Espagne républicaine.

En 1969, avec Pierre Larzabal et Jean Fagoaga, il crée l'Association Anai Artea, chargée de venir en aide aux Basques obligés de franchir la frontière et de se réfugier en France.

Dans la défense des réfugiés, il ne craint pas d'être leur leader pour dénoncer les abus des pouvoirs politiques, religieux, ou administratifs en participant à plusieurs grèves de la faim.

Il sera encore plusieurs fois élu député de Herri batasuna, ses derniers combats pour la liberté lui vaudront encore quelques jours de prisons, mais il ne renoncera jamais, il restera fidèle jusqu'au bout à ses idées, avec un idéal: voir un jour la patrie Basque libérée, unie et bascophone.

Il mourra le 9 mars 1981 à Bayonne, le peuple Basque ce jour de mars a perdu certainement l'un de ses plus grands patriotes, à la fois poète, écrivain et homme politique de haut rang.

## Egitaraua
## Programme

### 2011ko agorrilaren 7an, igantean

*10:30* ***Meza, pastoraleko arizaleekin***
Messe avec les acteurs de la pastorale

*11:30* ***Karrika üngürüa***
Défilé

*12:30* ***Bazkaria oroer zabalik***
Repas ouvert à tous

*15:30* ***MONZON PASTORALA***
Représentation

*20:30* ***Aiharia oroer zabalik***
Repas dansant ouvert à tous



### 2011ko agorrilaren 13an, neskenegünean

*10:30* ***Meza, pastoraleko arizaleekin***
Messe avec les acteurs de la pastorale

*11:30* ***Karrika üngürüa***
Défilé

*12:30* ***Bazkaria oroer zabalik***
Repas ouvert à tous

*15:30* ***MONZON PASTORALA***
Représentation

*20:30* ***Aiharia oroer zabalik***
Repas dansant ouvert à tous

Imp.PIERROU Siret 349707034 RM 640